



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2025ko otsailaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko otsailaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, , DACHAGUER Peio, HEGUY Antton,. IRIART Jean Claude

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

Afitxatze eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

4. ERABAKIA: LURRALDE HITZARMEN OROKORRAREN IZENPETZEA

FaLK-ekin

(9.1 nomenklatura)

Lurralde Hitzarmen Orokorra (LHO) lurraldeko proiektu partekatu baten eraikitzeko lankidetzaurraspidea da.

FaLK eta lurralde erakundeen arteko hitzarmen-esparrua osatzen du eta haurtzaro eta gazteria kontratuak ordeztu ditu.

LHO 4 edo 5 urteko akordio politiko batean gauzatzen da, FaLK eta lurralde erakundeen artean.

Departamenduetako eskemekin loturan, baita pobrezia borrokatzeko prebentzio planekin ere, zerbitzuaren kalitatea ahalbidetzen du erakunde desberdinen eskuhartzeen arteko koherentzia ezarri.

Akordio politiko horrek tokiko hautetsien eta FaLK-eko administrazio kontseiluaren mobilizazioa eskatzen du, urraspide horren eramateko eta segipena egiteko.

2025-2029 LHO izenpetzearekin, ORTZAIZE herria, Garazi-Baigorri lurralde eremuko herria dena, haurtzaroaren arloan engaiatzen da (besteak euskal elkargoaren eskumenak dira) jakinez hauteman diren biztanleen beharren arabera lankidetzazabalago bat ezartzen ahalko dela proiektuz-proiektu kontratuari emendakinak eginez.

Eskuhartze esparru partekatueterako erreferentziatzeko marko politikoa ezartzen du, honako arloetan elkarlanean eraikitako diagnostiko batean oinarrituz: lehen haurtzaroa, haurtzaroa, gazteria, gizarte biziaren animazioa, gurasoentzako laguntzak, etxebizitza eta bizi ingurunea, eskubideetarako sarbidea eta inklusio digitala.

Erronkak:

-Garazi Baigorri lurralde eremuko familien politikaren ikuspegi orokorra partekatzea,

- Familia eta gizarte politikak biztanleen beharrek eta lurraldearen bilakaerarekin hobeki artikulatzea,
- Ekintzen eraginak neurtzea,
- Ekiteko aukera gehiago eskaintzea,

Balio erantsiak:

- Elkarlana erraztea, diagnostiko partekatu eta hitzarmen bakar batekin,
- Erakundeen eta tokiko eragileen arteko zeharkako lana indartzea,
- Ekintzak ulergarriago bilakatu Garazi Baigorri lurralde eremuarentzako proiektu orokor bat eraikiz,
- Ekintza berritzaileak eta esperimentalak garatzeko baliabideak lortzea,

Finantzazioak:

LHOK FaLK eta lurralde erakundeen engaiamendua gauzatzen du lurraldeko familien aldeko zerbitzuen finantzatzeko.

FaLK-ek bere finantzazioen zenbatekoak mantenduko ditu jarduera bolumen egonkorreko zerbitzuentzat eta arauzko esparruan kokatzen diren zerbitzu guzientzat. Gainera, tokiko erakundeak sostengatuko dituzten egituren kudeatzaileei zuzenean isuriko dizkien dirulaguntza gehigarriak «lurralde-bonus» gisara.

Bere aldetik, lurralde erakundea engaiatzen da eskolaldi-inguruko harrera eta finantzazioa bermatzera, bere ekarpena doitu. Engaiamendua eskumeneren bilakaeraren arabera egokituko da.

LHOn sartzen dira:

- hautatuko diren gaien arabera, biztanleriaren beharren diagnostiko partekatua,
- FaLK-ek eta lurralde erakundeek lagundutako orain arteko ekipamenduen eskaintza,
- Garazi Baigorri lurralde eremuko arlokako erronkak,
- Urraspidearen gidaritza eta ebaluazio modalitateak.

Ondorioz, ORTZAIZE herriak

- ONARTU DITU, FaLK-ekiko 2025-2029 lurralde hitzarmen orokorraren edukia eta haren izenpetzea,
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari urraspide horri loturiko dokumentu oro eta honako lurralde hitzarmen orokorra izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balitzko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko otsailaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2025/02/10an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2025/02/10an.